



## **ASKAGAIN EDO ITURRIBERRI PARKEAN DAGOEN KANTINA EDO ZERBITZU-ERAIKINAREN ERABILERA ETA USTIAKETARAKO EMAKIDA ESLEITZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN PLEGUA**

### **I- EMAKIDAREN EDUKIA**

#### **1.- XEDEA**

Jabari publikoko emakida honen xedea da Askagain edo Iturriberry parkean dagoen kantina edo zerbitzu-eraikinaren erabilera eta ustiaketa, Bergarako udal-mugarteko lurretan dagoena. Eraikin horren ustiapenaren helburua da erabiltzaileek eskatzen dituzten ohiko funtzioak betetzea, taberna-zerbitzuei eta komun publikoei dagokienez.

**CPV:** 5510000-1 Ostalaritzako zerbitzuak

**Espediente zenbakia:** 2026KOPR0007

#### **2.- EPEA**

Emakidak **hiru (3)** urteko iraupena izango du, harrera- eta funtzionamendu-akta sinatzen den egunetik zenbatuta.

#### **3.- KONTRATUAREN PREZIOA**

Begarako Udalak ez dio emango inolako prestazio ekonomikorik adjudikazio-hartzaileari; eta kontratazioaren xede den zerbitzuaren operazio-arriskua emakidartzaileari soil-soilik eskualdatzen zaio.

#### **4.- BERMEAK**

Udalak eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileri errekerimendua luzatuko dio, **1.000 euroko** bermea eratzeko gehienez ere 10 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Udalak ofizios egiaztatuko du eratu izana.



Bermea eskudirutan gordailutzea erabakitzen bada, bermearen zenbatekoa honako kontu korrante honetan sartuko da: Kutxabank ES94 2095 5070 79 1061075569. Kontzeptuan espedientearen zenbakia eta kontratuaren xedea aipatu beharko dira.

Berme-epea amaitzen denean (**lau hileko** epea, hartze-agiritik zenbatzen hasita), adjudikazio-hartzaileari bermea itzuliko zaio, osorik edo –bidezkoa bada– zati batean, baldin eta adjudikazio-hartzaileak emakidako betebeharrak guztiak beteta baditu.

## **II. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA**

### **5.- ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA**

Emakida honen adjudikazioa prozedura irekiaren bidez egingo da; alegia, interesduna duen edonor aurkez daiteke. Administrazioak ahalmen osoa izango du emakida bere iritzian abantailarik onenak eskaintzen dituen proposamenari adjudikatzeko. Era berean, lizitazioa hutsik utzi ahal izango du.

Aurkeztutako eskaintzak baloratzeko orduan, **irizpide** hauek hartuko dira kontuan:

- 1.- Aurkeztutako kudeaketa-proiektua, eta aurkezten duen lan-taldea, guztira 20 puntura arte.
- 2.- Lizitazailea irabazle suertatuko balitz, zerbitzuan egingo dituen hobekuntzak, Udalarendako inolako kosturik gabe eta Udalak onartzen baditu, 5 puntura arte.

### **6. PROPOSAMENAK AURKEZTEA**

Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoen parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 71. artikuluan zehazten diren kontratatze debekuren bat ez badute.

Halaber, nor bere kabuz edo baimendutako ordezkariaren bitartez jardun ahal izango dute. Ordezkarien kasuan berriaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten izenean horko kide bat datorrenean, agiri bidez justifikatu beharko du ahalmena duela horretarako. Bi kasuetan ere, kontratatze gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Proposamenak Bergarako Udaleko Erregistro Orokorrean (**BAZ**) aurkeztu beharko dira **HAMABOST (15) EGUN NATURALEKO** epean lizitazio iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, azken egunean soilik aukera izanda **13:00ak** arte aurkezteko. Epe-bukaerako eguna larunbat, igande edo jaiegun suertatuz gero, hurrengo laneguneko 13:00ak arte luzatuta gelditzen da.

Ezkutukoak izango dira proposamenak, eta horiek aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe onartzen duela lizitatuzaileak plegu honetan aurreikusitako guztia. Lizitatuzaileek ezin izango dute aurkeztu aldagairik edo alternatibarik.

Lizitatuzaileek proposamenak gutun-azal itxi batean aurkeztuko dituzte, honako inskripzio honekin: "Askagain edo Iturriberri parkean dagoen kantina edo zerbitzu-erakina prozedura ireki bidez ustiatzeko esleipenean parte hartzeko proposamena".

Gutun-azal horren barruan A eta B gutun-azalak sartuko dira, honako inskripzio honekin:

- A gutunazala: Dokumentazio administratiboa
- B gutunazala: Proposamen teknikoa

Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 80. artikuluari jarraituz, proposamenak postaz ere aurkeztu ahal izango dira; horrelakoetan, enpresa lizitatuzaileak Postetxean eskaintza zein egunetan sartu den justifikatu beharko du eta kontratazio-organismoari eskaintza bidali dela jakinarazi beharko dio faxez (943 77 91 63 zenbakira) klausula honetako lehenengo idazatian jasotako epea amaitu baino lehen. Baldintza bi horiek pilatu ezean ez da proposamenik onartuko, proposamenak aurkezteko epea amaitzeko eguna baino beranduago jasotzen bada. Dena den, jarritako epea igaro eta hurrengo hamar egun naturalak igaro ostean ez bada proposamena jaso, ez da inolaz ere onartuko.

**"A" gutunazalean,** ondorengo dokumentu hauek sartuko dira:

- **Europako Kontratazio Dokumentu Bakarra (DEUC).** DEUCen formulario normalizatua helbide elektronikoa honetan eskura daiteke: <https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es> .

Halaber, udalaren Kontratuzailearen Profilean PDF formatuan eta XML formatuan eskura daiteke, lizitatuzaileek DEUC betetzeko inportatu ahal izateko.

- **Posta elektronikoko helbide bat jakinarazpen elektronikoaren abisua** bidaltzeko, baita errekerimenduak edo eskaerak egiteko, datuak argitzeko, dokumentazio osagarria emateko edo akats konpongarriak daudela jakinarazteko ere (I.Eranskina)

-

Aurkeztutako dokumentazioan zuzengarria den akatsen bat egongo balitz, lizitatuzaileak gehienez ere hiru egun baliouduneko epean aurkeztu beharko du zuzenketa eraginetarako eskatu zaion dokumentazioa –errekerimendua jasotzen denetik kontaktzen hasita–. Errekerimendua aipatutako epearen barruan betetzen ez bada, ulertuko da lizitatuzaileak eskaintza erretiratu egin duela eta prozeduratik kanporatua izango da.

**"B" gutunazalean,** gutxienez 5. atalean zehaztutako atal guztiak garatu beharko dira.

## **7. KONTRATAZIO-MAHAIA**

Kontratazio-mahaia honako hauek osatuko dute:

### **LEHENDAKARIA:**

- Bergarako Udaleko alkate-lehendakaria, edo hark eskuordetuko duena.

### **MAHAIKIDEAK:**

- Kontu-hartzailea, edo hark eskuordetuko duena.
- Udaleko idazkaria, edo hark eskuordetuko duena.
- Zerbitzu Orokorretako eta Kontratazioko Teknikaria, Kontratazio Mahaiko Idazkari lanak egingo ditu.

Mahaiaren bileran parte hartu ahal izango dute, aholkularitza-eginkizunetarako, Mahaiak eskatutako udal teknikari arduradun guztiek. Mahaiak, halaber, bidezko iritzitako txosten tekniko guztiak ere eskatu ahal izango ditu.

## **8. AGIRIAK SAILKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA**

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan honako jarduketa hauek egingo dira:

### **1. "A" GUTUNAZALA IREKITZEA ETA BARRUAN DARAMAN DOKUMENTAZIOA KALIFIKATZEA**

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, A gutunazala irekiko da, eta dokumentuak badaudela egiaztatuko da; bestela, konpontzeko izapidea egingo du Kontratazio Mahaia. Mahaiak, aurkeztutako agiriak kalifikatu ondoren eta, hala badagokio, antzemandako akatsak edo ez-eginak zuzendutakoan, zehaztuko du zein diren aukeraketa irizpideei egokitzen zaizkien enpresak eta berariaz adieraziko du nortzuk onartu dituen lizitazioan, nortzuk geratu diren kanpoan eta zergatik geratu diren kanpoan.

### **2. "B" GUTUNAZALA IREKITZEA**

"B" gutunazala proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo osteguneko 10:15ean irekiko da, aldezturik webgunean beste data bat zehaztu ezean.

Hasierako deialdi honen mantentzea edo, kasu, aldaketak argitara emango dira Bergarako Udaleko web gunean, zehazki Hirigintza Saileko atalean, baina jakinarazpenetarako egoki jotzen den beste edozein bide ere erabili ahal izango da.

Egintza horretan berariazko adierazpena egingo da mahaiak proposamenei emandako kalifikazioari buruz eta lizitaziora onartu direnak identifikatuko dira, baita baztertu direnak ere, eta kasu horretan baztertzeko arrazoiak azalduko dira.

### 3. ESKAINTZAK SAILKATZEA

Behin irizpide guztiak baloratu ondoren, aurkeztutako proposamenak Mahaiak sailkatu egingo ditu (puntuazio handienekotik gutxienekora) eta emakida adjudikatzeko proposamena bideratuko du.

### 4. LEHEN SAILKATUARI ERREKERIMENDUA EGITEA

Lehenagoko ekintzak egin eta gero eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatuari Alkatetzatik eskatuko zaio ondoren adierazten den dokumentazioa entregatu dezala hamar laneguneko epean, errekerimendua jaso duen egunaren biharamunetik hasita:

- Lizitatuaren edo ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten ordezkari izan jardunez gero, horretarako behar besteko ahalordetza.

Lizitatuak pertsona juridikoa bada: eratzeko edo aldaketa-eskritura hala dagokionean, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturik, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, inskribapena aplikaziozkoa zaion merkataritza legeriarekin bat etorritik eskatu ahal denean. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du, jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribatuta egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jardura zuzentzen duten arauak.

- **Kaudimen ekonomikoa:**
  - Irizpidea: Gutxienez 150.000 euroko estaldura duen erantzukizun zibileko aseguru izatea. Aseguru horrek arrisku hauek estali beharko ditu: ustiapenagatik erantzukizun zibila eta elikagaiengatik erantzukizun zibila.
  - Egiaztatzeko bidea: Aseguru konpainiak igorritako egiaztagiria edo aseguru poliza eta aseguruaren prima ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko ditu lizitatuak. Egiaztagiri horrekin batera, kontratuaren iraupen osoan zehar aseguru mantentzeko konpromisoa ere aurkeztu beharko du.
- **Kaudimen teknikoa:**
  - Irizpidea: Zerbitzuari atxikiko zaizkion langileren batek azken hamar urteetan gutxienez hiru hileko esperientzia izatea tabernari edo sukaldari gisa. Halaber, atxikiko diren langile guztiek elikagaiak manipulatzeko txartela izatea eta Baldintza Agiri Teknikoetan zehaztutako hizkuntza gaitasuna.
  - Egiaztatzeko bidea: Lan bitzita agiria, elikagaiak manipulatzeko txartelak eta hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko agiriak.
- **Ekonomi Jardueren gaineko Zergan (EJZ)**, kontratu-xedeari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta emanda egotearen egiaztagiria, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria gainerako

kasuetan; eta kasu bietan ere, zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko erantzukizun-adierazpena aurkeztuko du.

- Plegu honetako 4.atalean zehaztutako **behin betiko bermea** gordailupean uztea.

Halaber, informatzen da Udalak, 39/2015 Legeko 53.1d) artikuluari jarraiki, kasuan kasuko Administrazioaren eskutik, honako datu hauek eskuratuko dituela **ofizioz**, eta hala, eskaintza onuragarriena aurkeztu duen **lizitatzailleak ez dituela honako datu hauek egiaztatu beharko**:

- **Zerba betekizunetan zein Gizarte Segurantzarekikoetan egunean** egoterari buruzko ziurtagiriak. SPKLko 771.1d), 140.1 a) eta 150.2 artikuluek ezarritakoari jarraiki, honako Administrazio hauengandik eskuratuko dira datuak:
  - Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko Foru Ogasuna.
  - Gizarte Segurantzaren.

\*\*Hori horrela izanda, zergak aipatu Lurralde Historikoetan ordaintzen ez dituzten lizitatzailleak ziurtagiri positiboak aurkeztu beharko dituzte.

- **Begarako Udalarekiko betebeharretan** egunean egotea.

Adierazitako epe horretan errekerimendua zuzen bete ezean, lizitatzailleak eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da eta hurrengo lizitatzailleari eskatuko zaio dokumentazio bera, betiere eskaintzen sailkapenaren hurrenkerari jarraituz.

## **9. ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZAZIOA**

Adjudikazioa, gehienez ere, lizitatzailleak dokumentazioa aurkeztu eta hurrengo 5 egun baliodunetan gauzatuko da, betiere lizitatzailleak adierazitako dokumentazioa aurkeztu badu eta behin betiko bermea jarri badu.

Adjudikazioa gehienez ere 15 eguneko epean argitaratuko da –behin betiko adjudikazioa egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita–.

Emakida formalizatu egingo da jarduera hasi aurretik. Adjudikazio-hartzailearen erruagatik emakida formalizatu gabe geratzen bada, udalak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta honek kalte-ordainak ordaindu beharko ditu.

## **III. EMAKIDA GAUZATZEA**

## **10. KANTINAREN USTIAKETA**

Kantinaren ustiaketa adjudikazio-hartzailearen arriskuz eta menturaz egingo da.



Ustiapen-kontratua plegu honetan, kontratuan eta baldintza teknikoaren pleguan jasotako baldintzen arabera gauzatuko da, eta, hala badagokio, Bergarako Udalak organo tekniko edo erabakitzaileen bidez emandako instrukzioak jarraituz.

## **11. EMAKIDA-HARTZAILAREN LANEKO BETEBEHARRAK**

Emakidak ez dakar berarekin, inolako kasu edo egoeratan, ez lan-harremanik ezta funtzionario-harremanik ere Bergarako Udalaren eta emakida-hartzailearen edo horren langileen artean.

Emakida-hartzaileak bete egin behar ditu lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta garbitasunaren arloan indarrean dauden lege-xedapenak; eta aipatutakoak bete ezean, Udala salbuetsita geldituko da horren inguruko edozein erantzukizunetatik.

Emakida-hartzaileak kontzesio hau ezingo dio laga beste bati, ez osorik, ez zatika.

Ez da onartuko lokalaren ustiapenaren kudeaketa azpikontratatzetik. Onartu ahal izango da lan osagarriak edo adjudikazio-hartzaileak berak garatutako lanetan laguntzeko lanak azpikontratatea, garbiketarenak adibidez, baina edonola ere SPKLaren 215. artikuluan ezarritako betebeharrak beteta; halaber, azpikontratutako enpresei eta enpresa hornitzaileei egin beharreko ordainketa SPKLaren 216. artikuluan xedatutakoaren arabera egin beharko da.

## **12. USTIAKUNTZA ITZULTZEA**

Emakidaren epea amaitzen denean, Bergarako Udalaren eskuetara itzuliko da berriz zerbitzua, eta emakida-hartzaileak kantina bueltatu egin beharko du baldintza teknikoaren pleguan ezarritakoaren arabera, egoera egokian eta funtzionamendu onean.

## **13. USTIAKUNTZA BERRESKURATZEA**

Interes publikoko arrazoiak tarteko direnean, Bergarako Udalak berreskuratu ahal izango du zerbitzua. Horrelako kasuan, bi hilabeteko aurrerapenarekin jakinarazi beharko dio ustiaketaren adjudikazio-hartzaileari.

## **14. EMAKIDA ALDATZEA**

Bergarako Udalak aldatu ahal izango ditu kontratatutako zerbitzuaren ezaugarriak, betiere interes publikoko arrazoiak tarteko direnean. Horrela, zerbitzuaren garapenari buruz Udalak hartutako erabakiek gorabehera ekonomikorik ez dakartenean, kontratu-hartzaileak ez du horiengatik kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Aldaketek

finantza erregimenari eragiten diotenean, ordea, Bergarako Udalak eutsi egingo dio kontratua adjudikatzerakoan bilatzen zen orekari.

## **15. EMAKIDA BERTAN BEHERA LAGATZEKO ARRAZOIAK**

Emakida amaitzeko arrazoiak hauek dira:

- a) Emakida-hartzaileari gerora sortutako ezintasuna edo bere nortasun juridikoaren iraungipena.
- b) Emakida -aitorpena edo kaudimengabeziaren aitortpena beste edozein prozeduratan.
- c) Zerbitzuen eraikinaren zesioa, eskualdaketa edo errentamendua.
- d) Iraungitzea, epea amaitu delako.
- e) Emakida erreskatatzea.
- f) Elkarren arteko akordioa.
- g) Kanona ez ordaintzea edo kontratuak dakartzan betebeharrak behin eta berriz ez betetzea. Behin eta berriz ez betetzea dagoela ulertuko da arau-urraketa berbera behin baino gehiagotan egiten denean edo bi arau-urraketa desberdin egiten direnean.
- h) Ondasuna desagertzea.
- i) Hartzaileak bere aldetik emakida bertan behera uztea edo hari uko egitea. Bertan behera utzi duela ulertuko da kontzesio-hartzaileak, bidezko arrazoirik gabe, zerbitzuen eraikina ustiatu behar dituen sasoiatan derrigorrez zerbitzua eman behar duen bi egun baino gehiago jarraian ez duenean ematen (baldintza teknikoetako 8. artikulua), langileak kendu edo zerbitzuaren beharrianak zeharo betetzen ez dituelako.
- j) Laneko betebeharrak zein baldintza higieniko sanitarioak ez betetzea.
- k) Plegu honetan edo baldintza teknikoen pleguan edo aplikagarri diren bestelako xedapenetan aurreikusitako bestelako arrazoiren batengatik.

Emakida amaitzean, emakida -hartzaileak berehala utzi beharko du libre instalazioa.

## **16. UDALAREN ESKUBIDEAK**

Udalaren eskubide izango da kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzea, bertan behera uzteko erabakia hartzea eta horren eraginak zehaztea, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuan ezarritako betebeharrak eta eraginaren mugen barruan eta horiei lotuta.

Horretarako hartutako erabakiek amaiera emango diote bide administratiboari eta hartzen diren unetik bertatik bete beharrekoak izango dira.

## **17. JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Administrazio-bidea agortzen duten erabakien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da, Jurisdikzio hori arautzen duen Legeak xedatutakoarekin bat etorriz.

## **18. ARAUBIDE JURIDIKOA**

Plegu honetan eta baldintza teknikoen pleguan arautzen den jabari publikoko emakida-kontratuak administrazio-izaera dauka, eta Zuzenbide Administratiboak arautzen du bere prestaketa, eskumena, adjudikazioa, eraginak eta amaiera.

Halaber, Baldintza agiri honetan eta baldintza teknikoen pleguan jasotakoak arautzen du. Horietan berariaz jaso gabe dauden kasuetarako, ondorengoak izango dira arau:

- Toki Jardunbideari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea;
- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea, bere oinarritzko artikuluetan;
- Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua; eta horiekin bat datozen eta gai honetan aplikagarri diren bestelako arauak.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, baina soilik aplikagarri zaizkion xedapenak, Lege horretako 4. eta 9.1 artikulua ezarritakoarekin bat.

## **19. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK**

### **Lan-baldintzak betetzeko baldintzak**

Enpresa kontratu-hartzaileak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu; eta bereziki, garatu beharreko prestazioak lan-ordenantzaren edo hitzarmen kolektiboren bati lotuta badaude, kontratu-hartzailea behartuta dago dagozkion lan-ordenantzaren eta hitzarmenaren xedapenak betetzera.

Obligazio hori bete ezean, hori kontratuaren ez-betetzea izango da eta, horrenbestez, zigorra ezarri ahal izango zaio, kontratuaren aurrekontuaren % 10 artekoa, alegia.

### **Baldintza higieniko-sanitarioak:**

Kontratu-hartzaileak bermatu egin beharko du lokala garbitasun-baldintza egokienetan egongo dela, Preskripzio Teknikoen Pleguan jasotako jarraibideen arabera.

Edonola ere, errespetatu egin beharko da ostalaritza-alorrean aplikagarri den araudi higieniko-sanitarioa.

Obligazio hauek kontratua gauzatzean bete beharreko baldintzak dira eta, horrenbestez, horiek bete ezean, kontratu honetako edozein klausula betetzen ez denerako orokorrean aurreikusita dauden ondorioak ere sortuko dira.



## **20. KONTRAESANA DOKUMENTAZIOAREN ARTEAN**

Kontratatzailearen profilean argitaratzen diren agiri teknikoen, arazoizko txostenaren, administrazio-agirien edo gainerako agirien artean desadostasunik balego, Baldintza Administratibo Zehatzen Pleguko xedapenak gailenduko dira.

**DILIGENTZIA:** *Jasota gera dadila Askagain edo Iturriberri parkean dagoen kantina edo zerbitzu-eraikinaren erabilera eta ustiaketa esleitzeko eta arautzeko Baldintza Administratibo Zehatzen Agiri hau 2026ko ekainaren 5eko dekretu baten bidez onartutakoa dela.*

*Bergaran, 2026ko ekainaren 5ean*

IDAZKARIA

## I.ERANSKINA

### JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK

#### ORDEZKARIAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK

Izena eta abizenak	NAN
Helbidea, Udalerria eta Posta Kodea	
Jakinarazpenen abisua bidaltzeko posta elektronikoa	
Harremanetarako telefonoa	

\*Jakinarazpenak ordezkariari egingo zaizkio. Jakinarazpen elektronikoa ikusteko identifikazio sistema elektronikoa beharko du (B@kQ, NAN elektronikoa...)

#### ORDEZKATUAREN DATUAK

Izen Soziala	IFZ
--------------	-----

\*Aldi baterako enpresa elkarte bada, eredu egokitu egin behar da, aldi baterako enpresa elkartean izango den enpresa bakoitza ordezkatzeko duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko

SINADURA

## PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARA LA ADJUDICACIÓN DE LA CONCESIÓN PARA EL USO Y EXPLOTACIÓN DE LA CANTINA O EDIFICIO DE SERVICIOS SITO EN EL PARQUE ASKAGAIN O ITURRIBERRI

### I- CONTENIDO DE LA CONCESIÓN

#### 1.- OBJETO

Es objeto de la presente concesión demanial el uso y explotación de la cantina o edificio de servicios sito en el Parque de Askagain o Iturriberry, en terrenos comprendidos en el término municipal de Bergara. La explotación de este edificio tiene por objeto el cumplimiento de las funciones habituales requeridas por los usuarios en relación con los servicios de bar y aseos públicos.

**CPV:** 5510000-1 Servicios de hostelería

**Número de expediente:** 2026KOPR0007

#### 2.- PLAZO

La duración de la concesión será de **tres (3)** años a contar desde la fecha de formalización del acta de recepción y funcionamiento.

#### 3.- PRECIO DEL CONTRATO

La empresa adjudicataria no recibirá prestación económica alguna del Ayuntamiento, siendo el riesgo operacional del servicio objeto de la concesión transferido únicamente a la concesionaria.

#### 4.- GARANTÍAS

El Ayuntamiento requerirá al licitador que haya presentado la mejor oferta para que dentro del plazo de diez (10) días hábiles, a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, constituya una garantía de **1.000 euros**.

En caso de que se optase por depositar la garantía en efectivo, el importe de la garantía se ingresará en la siguiente cuenta corriente: KUTXABANK ES94 2095 5070 79 1061075569. Se deberá hacer mención en el concepto al número de expediente y al objeto de la concesión.

Finalizado el plazo de garantía (**cuatro meses** a contar desde el acta de recepción), se procederá a la devolución total o parcial de la garantía al adjudicatario, si éste estuviere al corriente en el cumplimiento de las obligaciones.

## **II. PROCEDIMIENTO PARA ADJUDICAR**

### **5.- PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACIÓN**

La adjudicación de la presente concesión se realizará por procedimiento abierto; es decir, se podrá presentar cualquier persona interesada. La Administración tendrá plena facultad para adjudicar la concesión a la proposición que, a su juicio, resulte más ventajosa. Así mismo, podrá declarar desierta la licitación.

En la valoración de las ofertas presentadas se tendrán en cuenta los siguientes **criterios**:

- 1.- Proyecto de gestión presentado y el grupo de trabajo que presenta, hasta un total de 20 puntos.
- 2.- Mejoras del servicio que la licitadora aplicará en caso de resultar ganadora, sin costo alguno para el ayuntamiento y que sean aceptadas por el ayuntamiento, hasta 5 puntos.

### **6. PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES**

Podrán participar en este procedimiento de contratación las personas físicas o jurídicas con capacidad jurídica y de obrar que acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no se encuentren incurso en alguna de las prohibiciones de contratar previstas en el artículo 71 de la Ley de Contratos del Sector Público.

Asimismo, podrán actuar por cuenta propia o a través de representante autorizado. En el caso de representantes deberán hacer uso del poder bastante otorgado al efecto. Cuando en nombre de una persona jurídica venga un miembro de la misma, deberá justificar documentalmente su capacidad para ello. En ambos casos, las causas de incompetencia para contratar a que se refiere el apartado anterior serán de aplicación al representante.

Las proposiciones para tomar parte en la licitación se podrán presentar en el Registro General del Ayuntamiento de Bergara (**BAZ**), dentro del plazo señalado de **QUINCE (15) DÍAS NATURALES**, a contar desde el día siguiente a la fecha de publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, teniendo posibilidad el último día de presentar las proposiciones hasta la **13:00**. En caso de que el plazo finalice en sábado, domingo o festivo, se entenderá prorrogado hasta las 13:00 horas del siguiente día laborable.

Las proposiciones serán secretas y se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de apertura de las proposiciones. Su presentación implica la aceptación incondicional por parte de la licitadora de todo lo establecido en el presente pliego. Las licitadoras no podrán presentar variantes o alternativas.

Presentarán sus proposiciones en un sobre cerrado con la siguiente inscripción: "Proposición para participar en la adjudicación, mediante procedimiento abierto, de la explotación de la cantina o edificio de servicios sito en el parque Askagain o Iturriberri".

Dentro de este sobre se incluirán los sobres A y B, con la siguiente inscripción:

- Sobre A: Documentación Administrativa.
- Sobre B: Propuesta técnica.

Conforme al artículo 80 del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, las proposiciones podrán ser presentadas así mismo por correo. En tal caso, la empresa licitadora deberá justificar la fecha de imposición del envío en la oficina de Correos y anunciar al órgano de contratación la remisión de la oferta mediante fax (en el número 943 77 91 63) antes de la finalización del plazo señalado en el párrafo primero de esta cláusula. Sin la concurrencia de ambos requisitos no será admitida la proposición si es recibida con posterioridad a la fecha de terminación del plazo de presentación de proposiciones. Transcurridos, no obstante, diez días naturales a partir de la fecha indicada sin haberse recibido la proposición, ésta no será admitida en ningún caso.

**El Sobre "A"**, incluirá la siguiente documentación:

- **Documento Europeo Único de Contratación (DEUC)**. El formulario normalizado del DEUC se halla disponible en la siguiente dirección electrónica: <https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es> .  
Asimismo, en el Perfil de Contratante de este Ayuntamiento se puede obtener el DEUC en formato XML para su cumplimentación por parte de las empresas licitadoras, así como en formato PDF.
- Una dirección de correo electrónico para remitir **el aviso de notificaciones electrónicas**, así como para requerimientos o solicitudes de aclaración, documentación complementaria o comunicación de existencia de vicios subsanables (**Anexo I**)

En caso de que en la documentación a presentar hubiera algún error subsanable, la licitadora deberá presentar la documentación requerida en un plazo máximo de tres días hábiles a contar desde la recepción del requerimiento para la subsanación. De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que la licitadora ha retirado su oferta y será excluida del procedimiento.

**El Sobre "B"**: deberá desarrollar al menos todos los apartados relatados en el punto 5.

## **7. MESA DE CONTRATACIÓN**

La mesa de contratación tendrá la siguiente composición:

#### PRESIDENTE:

- Quien ostente la Alcaldía-Presidencia del Ayuntamiento de Bergara, o persona en quien delegue.

#### VOCALES:

- El/la Interventor/a, o persona en quien delegue.
- El Secretario del Ayuntamiento, o persona en quien delegue
- Técnico de Servicios Generales y Contratación del Ayuntamiento, que realizará las labores de Secretaría de la Mesa de Contratación.

Podrá asistir a la reunión de la Mesa todo el personal responsable técnico municipal que la Mesa solicite para realizar funciones de asesoramiento. La Mesa podrá a su vez solicitar todos los informes técnicos que crea convenientes.

### **8. CLASIFICACIÓN DE DOCUMENTOS Y APERTURA DE PROPOSICIONES**

Vencido el plazo de presentación de proposiciones se llevarán a cabo las siguientes actuaciones:

#### **1. APERTURA DEL SOBRE “A” Y CALIFICACIÓN DE LA DOCUMENTACIÓN QUE CONTIENE**

Concluido el plazo de presentación de ofertas, se procederá a la apertura del sobre A, verificándose que constan los documentos o, en caso contrario, realizando el trámite de subsanación. La Mesa, una vez calificada la documentación presentada y subsanados, en su caso, los defectos u omisiones observados, procederá a determinar las empresas que se ajustan a los criterios de selección, con pronunciamiento expreso sobre las admitidas a la licitación, las rechazadas y sobre las causas de su rechazo.

#### **2. APERTURA SOBRE “B”**

La apertura sobre "B" se realizará a las 10:15 horas del jueves siguiente a la finalización del plazo de presentación de proposiciones, salvo que previamente se especifique otra fecha en la web municipal.

El mantenimiento de esta convocatoria inicial o las modificaciones que puedan darse se publicarán en la página web municipal, en concreto en la sección correspondiente a Urbanismo, aunque podrá utilizarse cualquier otro medio que se considere adecuado para su notificación.

Dicho acto se iniciará con un pronunciamiento expreso sobre la calificación de las proposiciones efectuadas por la mesa, identificando las admitidas a licitación, las rechazadas y, en este caso, las causas de su rechazo.

### 3. CLASIFICACIÓN DE LAS OFERTAS

Una vez valorados todos los criterios, la Mesa procederá a la clasificación de las proposiciones presentadas, por orden decreciente, y elevará la propuesta de adjudicación.

### 4. REQUERIMIENTO A LA PRIMERA CLASIFICADA

Realizadas las actuaciones anteriores, desde Alcaldía se requerirá a la licitadora que haya presentado la mejor oferta para que, dentro del plazo de diez días hábiles –a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento–, entregue la siguiente documentación:

- Fotocopia del Documento Nacional de Identidad de la persona licitadora o su representante. Además, en caso de que se actúe en representación de otra persona o entidad, poder bastante al efecto.

Cuando la licitadora sea una persona jurídica, escritura de constitución o modificación, en su caso, debidamente inscrita en el Registro Mercantil y número de identificación fiscal, cuando la inscripción fuera exigible conforme a la legislación mercantil que le sea aplicable. Si no lo fuere, la acreditación de la capacidad de obrar se realizará mediante la escritura o documento de constitución, estatutos o acto fundacional en el que constaren las normas por las que se regula su actividad, inscritos, en su caso, en el correspondiente Registro oficial.

Las circunstancias señaladas en las anteriores letras a) y b) podrán acreditarse mediante una certificación del Registro Oficial de Contratistas y Empresas Clasificadas de la Comunidad Autónoma Vasca, o del Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Estado. A la referida certificación deberá acompañarse una declaración responsable de la licitadora en la que manifieste que las circunstancias reflejadas en el correspondiente certificado no han experimentado variación.

- **Solvencia económica:**
  - Criterio: Disponer de un seguro de responsabilidad civil con cobertura mínima de 150.000 euros. Dicho seguro deberá cubrir los riesgos de responsabilidad civil por explotación y responsabilidad civil por alimentos.
  - Medio de acreditación: El licitador deberá presentar justificante expedido por la compañía aseguradora o póliza de seguro y justificante del pago de la prima del seguro. Este justificante deberá ir acompañado del compromiso de mantenimiento del seguro durante toda la duración del contrato.
- **Solvencia técnica:**
  - Criterio: Experiencia mínima de tres meses como tabernero/a o cocinero/a en los últimos diez años por parte del personal adscrito al servicio. Asimismo, que todo el personal a adscribir al contrato disponga

de carnet de manipulación de alimentos y que tenga la capacidad lingüística en euskera recogida en el Pliego de Condiciones Técnicas.

- Medio de acreditación: Certificado de vida laboral, carnet de manipulador de alimentos y certificados de aptitud lingüística.
- Acreditación de situación de alta en el **Impuesto de Actividades Económicas (IAE)**, en el epígrafe que corresponda al objeto del contrato, mediante la presentación del alta, si se refiere al ejercicio corriente, o del último recibo del IAE, en los demás casos, acompañada en ambos supuestos de una declaración responsable de no haberse dado de baja en la matrícula del referido impuesto.
- **Garantía definitiva** definida en el apartado 4 del presente pliego.

Asimismo, se informa que el Ayuntamiento, de acuerdo con el artículo 53.1d) de la Ley 39/2015, recabará de oficio los siguientes datos, de forma que la licitadora que haya presentado la oferta más ventajosa no deberá acreditar los siguientes datos:

- **Estar al corriente en sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social.** De conformidad con los artículos 771.1d), 140.1 a) y 150.2 de la LCSP, los datos se obtendrán de las siguientes Administraciones:
    - o Haciendas forales de Guipúzcoa, Álava y Bizkaia.
    - o Seguridad social.
- \*\* En este sentido, las licitadoras que no tributen en dichos Territorios Históricos deberán presentar certificaciones positivas.
- Estar al **corriente de los pagos** respecto al Ayuntamiento de Bergara.

De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que la licitadora ha retirado su oferta, procediéndose en ese caso a recabar la misma documentación a la licitadora siguiente, por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas.

## **9. ADJUDICACIÓN Y FORMALIZACIÓN**

La adjudicación definitiva se realizará en un plazo máximo de 5 días hábiles desde que se presente la documentación, siempre y cuando la licitadora haya presentado la documentación indicada y haya depositado la fianza definitiva establecida.

La adjudicación se publicará en un plazo máximo de 15 días, a contar desde el día siguiente a la adjudicación definitiva.

La concesión será formalizada. En el caso de falta de formalización de la concesión por causas imputables a la adjudicataria, el ayuntamiento podrá acordar la resolución del mismo, previa audiencia de la interesada, que deberá indemnizar por los daños y perjuicios causados.

### **III. EJECUCIÓN DEL CONCESIÓN**

#### **10. EXPLOTACIÓN DE LA CANTINA**

La explotación de la cantina se realizará a riesgo y ventura del adjudicatario.

La concesión de explotación se ejecutará con sujeción a las cláusulas contenidas en el contrato y en presente pliego además de en el de prescripciones técnicas y, en su caso, a las instrucciones que mediante sus órganos de decisión o técnicos diera el Ayuntamiento de Bergara.

#### **11. OBLIGACIONES LABORALES DEL ADJUDICATARIO**

La concesión no supone, en ningún caso ni circunstancia, relación laboral ni funcionarial entre el Ayuntamiento de Bergara y el contratista o su personal.

La concesionaria está obligada al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad e higiene en el trabajo, quedando el Ayuntamiento exonerado de responsabilidad por este incumplimiento.

La concesionaria no podrá ceder ni total ni parcialmente la presente concesión.

No se aceptará la subcontratación de la gestión de la explotación del local. Se permitirá la subcontratación de tareas accesorias o como apoyo a las desarrolladas por la propia adjudicataria, como la limpieza, que en todo caso estará sujeta a los requisitos establecidos en el artículo 215 de la LCSP, así como el pago a empresas subcontratistas y suministradoras deberá ajustarse a lo dispuesto en el artículo 216 de la LCSP.

#### **12. REVERSIÓN DE LA EXPLOTACIÓN**

Cuando finalice el plazo contractual, el servicio revertirá al Ayuntamiento de Bergara, debiendo el contratista entregar la cantina con arreglo a lo establecido en el pliego de condiciones técnicas y en el estado de conservación y funcionamiento adecuados.

#### **13. RESCATE DE LA EXPLOTACIÓN**

El Ayuntamiento de Bergara podrá rescatar el servicio, fundamentado en razones de interés público. En este caso, deberá comunicárselo con una antelación de dos meses al adjudicatario de la explotación.

#### **14. MODIFICACIONES DEL CONTRATO Y SUS EFECTOS**

El Ayuntamiento de Bergara podrá modificar por razones de interés público las características del servicio contratado. Así, en el caso de que los acuerdos que dicte el Ayuntamiento respecto al desarrollo del servicio carezcan de trascendencia económica, el contratista no tendrá derecho a indemnización por razón de los mismos. Cuando las modificaciones afecten al régimen financiero, el Ayuntamiento de Bergara hará que prevalezca el equilibrio pretendido en la adjudicación del contrato.

## **15. CAUSAS DE EXTINCIÓN DE LA CONCESIÓN**

Constituyen causas de extinción de la concesión las siguientes:

- a) Incapacidad sobrevenida del concesionario o extinción de su personalidad jurídica.
- b) La declaración de concurso o la declaración de insolvencia en cualquier otro procedimiento.
- c) Cesión, traspaso o arriendo del edificio de servicios.
- d) Caducidad por vencimiento del plazo.
- e) Rescate de la concesión.
- f) Mutuo acuerdo.
- g) Falta del pago del canon o cualquier incumplimiento reiterado de las obligaciones derivadas del contrato. Se entenderá que hay reiteración cuando se realice un mismo incumplimiento más de una vez o se realicen dos incumplimientos diferentes.
- h) Desaparición del bien.
- i) Por abandono o renuncia del concesionario. Se entenderá que existe abandono cuando el concesionario, sin causa justificada, deje de prestar servicio durante más de dos días seguidos de obligado cumplimiento (artículo 8 del pliego de condiciones técnicas), durante las épocas de explotación del edificio de Servicios, mediante la retirada de su personal o desatención absoluta del servicio.
- j) El incumplimiento de los deberes laborales e higiénico sanitarios.
- k) Cualquier otra causa prevista en este pliego o en el de condiciones técnicas o en las disposiciones que resulten de aplicación.

A la terminación de la concesión el concesionario deberá de dejar libre la instalación de forma inmediata.

## **16. PRERROGATIVAS DEL AYUNTAMIENTO**

Corresponden al Ayuntamiento las prerrogativas de interpretar el contrato, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en el Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

Los acuerdos dictados al efecto pondrán fin a la vía administrativa y serán inmediatamente ejecutivos.

## **17. JURISDICCIÓN COMPETENTE**

Contra los acuerdos que pongan fin a la vía administrativa procederá el recurso contencioso-administrativo conforme a lo dispuesto en la Ley reguladora de dicha Jurisdicción.

## **18. RÉGIMEN JURÍDICO**

La concesión de dominio público que se regula en este pliego y en el de condiciones técnicas, tiene naturaleza administrativa, y se rige en cuanto a su preparación, competencia, adjudicación, efectos y extinción por el Derecho Administrativo.

El contrato se rige por lo dispuesto en este pliego y en el pliego de condiciones técnicas. En lo no previsto expresamente en los mismos, se estará a lo dispuesto en:

- Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local;
- la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, de Patrimonio de las Administraciones Públicas, en sus artículos básicos;
- el Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales y demás normas concordantes y aplicables a la materia.
- la Ley de Contratos del Sector Público 9/2017, de 8 de noviembre, conforme a lo establecido en los artículos 4 y 9.1 de la citada ley.

## **19. CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO**

### **- Condiciones de cumplimiento de condiciones de trabajo**

La adjudicataria está obligada al cumplimiento de las disposiciones vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de Seguridad y Salud en el trabajo y en particular cuando las prestaciones a desarrollar están sujetas a ordenanza laboral o convenio colectivo, la contratista está obligada a cumplir con las disposiciones de la ordenanza laboral y convenio correspondiente.

El incumplimiento de esta obligación se considerará un incumplimiento contractual que dará lugar a la imposición de una penalidad de hasta el 10% del presupuesto del contrato.

### **- Condiciones higiénico-sanitarias**

La adjudicataria garantizará condiciones óptimas de limpieza del local, según las indicaciones recogidas en el Pliego de Prescripciones Técnicas.

Se respetará en todo caso la normativa higiénico-sanitaria aplicable al sector de la hostelería.

Estas obligaciones constituyen condiciones de ejecución del contrato, y de su incumplimiento se derivan las consecuencias previstas con carácter general para el incumplimiento de cualquiera de las cláusulas de este contrato.



## **20. CONTRADICCIÓN EN LA DOCUMENTACIÓN**

En caso de discrepancia entre el Pliego de Condiciones Técnicas, el informe razonado, el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, o demás documentos que se publiquen en el perfil del contratante prevalecerán las disposiciones del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

***DILIGENCIA:*** Para hacer constar que este pliego de cláusulas administrativas particulares para la adjudicación de la concesión para el uso y explotación de la cantina o edificio de servicios sito en el parque Askagain o Iturriberry ha sido aprobado mediante decreto emitido el día 5 de junio de 2026.

Bergara, a 5 de junio de 2026

EL SECRETARIO

I.ERANSKINA / ANEXO I

JAKINARAZPEN ETA KOMUNIKAZIOAK JASOTZEKO DATUAK / DATOS A  
EFECTOS DE NOTIFICACIONES Y COMUNICACIONES

ORDEZKARIAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK / DATOS DE IDENTIFICACIÓN DEL REPRESENTANTE

Izena eta abizenak / Nombre y apellidos	NAN / DNI
Helbidea, Udalerria eta Posta Kodea / Dirección, Localidad y Código Postal	
Jakinarazpenen abisua bidaltzeko posta elektronikoa / Correo electrónico de aviso de notificaciones	
Harremanetarako telefonoa / Teléfono de contacto	

\*Jakinarazpenak ordezkariari egingo zaizkio. Jakinarazpen elektronikoa ikusteko identifikazio sistema elektronikoa beharko du (B@kQ, NAN elektronikoa...) / Las notificaciones se realizarán al representante, que deberá acceder a la notificación electrónica mediante un sistema de identificación electrónico (B@kQ, DNI electrónico...)

ORDEZKATUAREN DATUAK / DATOS ENTIDAD REPRESENTADA

Razón social	IFZ / CIF
--------------	-----------

\*Aldi baterako enpresa elkarteak bada, eredu egokitu egin behar da, aldi baterako enpresa elkarteak izango den enpresa bakoitza ordezkatzeko duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko / En el caso de Unión Temporal de Empresas, adoptar el modelo para añadir los datos relativos a todas las personas que representen a cada una de las empresas que formarán la UTE.

SINADURA / FIRMA

